

Gomendatutako liburua:

-Golding, John. "El cubismo: una historia y un análisis, 1907-1914". Alianza. Madrid. 1993.

## KUBISMOA

Kubismoa aurreko mendean plastika arloan emandako iraultzarik garrantzitsuenak izan zen. Louis Vauxcelles kritikariak asmatu zuen hitza Gil Blas aldizkarian 1908.ean, Georges Braque Kahnweiler-en galerian egindako erakusketa bati buruz hitz egin zuenean. Joera hau oso alderdi desberdinetatik sortu zen: Cezanne-k garaturiko esperientzia, bolumenen bitartez espazioari bertsio berri bat emanez; Braque, Picasso, Juan Gris eta Fernand Leger bezalako artisten nortasun sortzailea; arte beltzaren modaren bidez, interpretazio formal berriak eta arte objektuaren burujabetasuna gailendu zen mendebaldeko kulturaren konbentzionalismoen aurrean; antinaturalismoa, errealitateak eskaintzen zuen itxura objektiboak gaindituz; antitradizionalismoa, aurreko artearen arauak gainditzea; jarrera analitikoa, aurrez erabakitako zenbait elementutan oinarrituz antolatzea errealitate hori; geometrismoa naturako formak figura geometrikotara mugatzea izan zen; gaiekiko interes eza; kubismoari hasiera ematen zion "Les demoiselles d'Avignon" koadroak; zientziaren gorespena; kubismoa ez dago ikusmen-pertzepzioari loturik; kubistek arazo nagusi bat planteatu zuten: mintzaira piktorearen berezitasuna eta autonomia.

Dena dela, kubismoaren asmatzaileak Picasso eta Braque izan zirela esan daiteke, espazioaren sorkuntzak eta formak bat egiten zuten haien lanetan. Braque-ren ustez, kubismoaren helburua espazio berriaren materializazioa zen. Espazio berri hori Avignon-go andereñoak koadroan ikusi zen lehen aldiz. Lan hori ezagutu zenetik aurreko artearen eta oraingo artearen arteko muga bat dugu. Koadroaren bidez, Picasso aldi urdinetik eta zirku-sailetik urrundu zen. Espazioari eta formari buruzko ikerketa berria planteatu zuen.

Joera horren garapenean hiru aldi nagusi nabarmentzen dira: 1-cezanniarra (1907-1909); 2-analitikoa (1910-1912) eta 3-sintetikoa (1913-1914).

1-Aldi cezanniarra, Picassoren aldia izan zen, "Avignon-go andereñoak" koadroarekin hasten da eta "Horta del Ebro" lanarekin amaitzen da. Hurrengo ezaugarriak azpimarratzen dira: kolore gehienak alde batera utziz, berdeak eta okreak baino ez zituzten erabiltzen; perspektibaren desagertzea eta naturaren geometrizazio nabarmenarekin batera. Picassok eta Braquek Cezanne-ren kontzeptuak azkeneraino eraman zituztela esan daiteke, baina haren logika figuratibo eta paisajistikotik irten gabe.

2-1909z geroztik kubismo analitikoa agertu zen. Ezaugarri nagusiak hurrengoak ziren: aldiberekotasuna, forma deskonposaketa handiagoa eman zen; koadro berean irudikatutako objektuaren alderdi ugariak batu ziren; Mahai gainean jarritako objektuak zehazki analizatzen zituzten, ia kolore bakarreko plano gurutzatuen sistema batean oinarrituz; Braque-ren konposizioak nagusitzen ziren: musika-tresnak, edalontziak, fruta-ontziak eta egunkariak agertzen ziren, hau da, egunerokotasunaren objektuak; Irudi hauek ukimen-efektuak sortu zituzten; Egiten zutena objektuaren ingerada apurtzea zen, era horretan inguruko espazioa objektuaren barruan sar zitekeen; ikusleak objektuaren itxura eraiki zezakeen; koadroan irudiak egiteko lerro bertikal, horizontal

eta diagonalen egiturak erabiltzen zituzten; lerroak eta planoak elkartzen ziren; Figurazioaren eta abstrakzioaren arteko oreka bilatzen zen; gainera edozein sinbolismo saihestu zuten eta beti haien inguruko objektuak hartzen zituzten; Apollinaire-ren ustez, objektuak humanismoz blaituak ziren, zentzu horretan, artistaren estudioan eta bizitzan hartu zuten parte. Picasso-ren lanetan objektuak identifikatzeko aztarnak topatzen ditugu ia beti: botoi-ildo bat, erloju-katea, ile-xerloa, kitarra-hariak. Zentzu honetan, hitzak agertzen ziren, adibidez BAR leku horretan gaudela jakiteko.

3-Figurazioarekin haustura eman zen, baina horretan ere, errealitate objektiborantz hurbiltzea gertatu zen, collage-ren erabileraren bidez. Aldi analitikoan, objektua zatitzen eta analizatzen bazuten, kubismoaren arau espazial eta formal berriak erabiliz eta ia abstrakzioara helduz, gero, aldi sintetikoan, parez pareko prozesua eman zen, abstrakzioa alde batera utzita, errepresentazioa bilatuz. Braquek abstrakziotik abiatuz, gurutzatutako eta gainjarritako plano espazial batzuetan figurazioa bilatu zuen. Picassok, bestalde, forma abstraktu batzuk biltzen zituen, figurazioa bilatzeko. Objektua zatikatu ondoren, Picasso, Braque eta batez ere Juan Gris objektu hori berregituratzen hasi ziren, sintesi bisuala bilatu nahian, hau da, forma sinple eta ulergarriak sortuz eta datu gutxi erabiliz, baina objektuari buruzko informazio zabala emanez. Garai horretan collage-a asmatu zuten, mihixean zenbait elementu ezberdin erantsiz, paperak batez ere. Picassok teknika hau asmatu zuen, paper-zatiak, zigarro-paketeak, beste material batzuen zatiak ere sartuz. Braquek “papier collés” asmatu zuen, collage-aren teknika berezi bat. Han paper-zatiak eta paper-zerrenda batzuk baino ez ziren eransten. Collage-arekin aukera plastikoak gehitu ziren, material desberdinak agertu baitziren. Papier collés erabiltzearen helburua irudimenezko perspektiba bat lortzea izan zen.

Collage-a Kubismoan nahiz Dadaismoan erabili zen eta teknika hori arte lanetan elementu heterogenoak (papera, kartoia, alabrea eta abar) sartzean oinarritzen zen. Collage-ari esker, arteari aukera berriak eskaini zizkioten. Poetek ere erabili zuten teknika hori.

Picassok, 1913-1914 bitarteko urteetan burututako pinturretan, “tableau-objet” ikusten da, non pinturaren kontzeptua objektu edo ekoiztutako elementu bezala ulertzen den.

Picassoren eta Braque-ren asmakuntza formalak, adibidez, collage eta assemblageak beste higikunde artistiko batzuetan ikus ditzakegu, bai dadaismoan, bai gaur egungo mugimendu artistikoetan. 1909. urterarte Picasso-ren eta Braque-ren ikerketak bide berean zeuden, gero 1910-1911, egikerak eta burutzeak bat egin zuten.

Mugimendu honen historia 1910-1914 bitarteko urteetan Independenteen Aretoan eta Udazkenaren Aretoan parte hartu zuten artistekin hasi zen. Dena dela, 1909 urtetik aurrerako kubismoaren helburu formalak ezagutzen ditugu eta jakina da Cezanne-ren ikerketatik arteari garapen formal bat eman nahi ziotela. Ikuspuntu kubistatik formak eta espresioak garatu nahi izan zituzten. Hasieran, artista batzuen lanak, adibidez, Delaunay eta Leger, Cezanne-ren formatara hurbiltzen ziren. Baina urte horietan 1909.ean ez zuten Picassok eta Braquek garatutako ikerketa analitikoa ezagutu. Bi urte geroago, pintore askok haien lanak ezagutu zituztenez, kubismoari buruzko erakusketa bat eskaini zen Independenteen Aretoan. Erakusketa horretan Gleizes, Metzinger, Delaunay, Le Fauconnier, Leger, Archipenko, Picabia, Marie Laurencin, Roger de la Fresnaye eta Alfred Reth hartu zuten esku. Gero, beste erakusketa batzuk antolatu ziren eta kubismoaren teorigilea eta arte-kritikaria zen Guillaume Apollinairek, 1913.ean,

kubismoari buruzko lehen liburua idatzi zuen “Méditations esthétiques. Les peintres cubistes”.

Kubismoan bi korrante desberdin aurkitzen ditugu: lehendabizikoan, Picasso, Braque eta Juan Gris zeuden eta bigarren korrontean beste margolari kubista batzuk. Ezberdintasuna ikonografian aurkitzen da. Lehendabizikoek beraien gaiak asmatu eta era pertsonalean interpretatu zituzten. Adibidez, natura hilak etxeko objektuekin edo musika-tresnekin aurkitzen ditugu. Haien lantzen zituzten gaietan balio ikonografikorik eta tradizionalarik gabeko objektuak ikusten ditugu. Ez zegoen ideia sinbolikorik.

Bigarren taldean, hain famatuak ez ziren beste pintore kubista batzuek, hainbat elementu sinboliko eta anekdotiko gehitu zituzten. Aipatzearen, Albert Gleizes-ek (1881-1953) paisaia deskribatzaileak eta aurpegi bereizgarri fisionomikoak landu zituen, batik bat “Gizona balkoi batean” (1912) aipatu behar dugu. Jean Metzinger-ek (1883-1956) formaren eta edukinaren arteko ezberdintasun garbiagoa erakutsi zuen: gai naturalistaren mundutik ale batzuk sartzen zituen baina ez ziren ikusten berak asmatutako gaiak. Dena den, 1920.ean kubismo sintetikoaren lan onenak egin ziren. Adibidez, “Emakume fruta-ontziarekin” 1918.ean Juan Gris-en erreferentzia kromatikoak ikusten ditugu. Bere lana berezia izan zen hurrengo ezaugarriek esker: irudia eta natura hila gainjarriak eta gardenak ziren angeluzuzen eta erronbo-planoetatik irtetzen ziren. Dena dela, nahiz eta pintore horien garapen piktorikoa interesgarria ez izan, teoria kubistaren lehendabiziko azalpena egin zuten “De cubisme” liburuan, 1912.ean argitaratua. Liburu hori Gleizes-ek eta Metzinger-ek idatzi zuten. Pintura berriari buruzko lehendabiziko hitzarmena izan zen eta Apollinaire-ren saiok baino zazpi hilabete lehenago argitaratu zen. Liburu horretan kubismoa aztertzeke ikuspuntu neokantiano eta metafisikoa erabili zuten, baina beharbada garrantzitsuagoa da hurrengo: forma alde aurretik buruan ematea.

## GAIARAKO ARTELAN INTESGARRIAK

### PABLO PICASSO

- “Gertrude Stein-en erretratua” (1905-1906)
- “Avignon-go andereñoak” (1907)
- “Errezelen dantza” (1907)
- “Adreilu-lantegia Tortosan” (1909)
- “Ambroise Vollard-en erretratua” (1910)
- “Kahnweiler-ren erretratua” (1910)
- “Natura hila aulkian txirikordarekin” (1912)
- “Kitarra” (1912)
- “Ma Jolie” (1914)
- “Absenta kopa” (1914)
- “Biolina” (1915)

### GEORGES BRAQUE

- “Musika-tresnak” (1908)
- “L’Estaque-n etxeak” (1908)
- “Kitarra eta fruta-ontzia” (1909)

- “Piano eta mandolina” (1909-1910)
- “Emakumea mandolinarekin” (1910)
- “Natura hil nature morte” (1911)
- “Ceret-en teilatuak” (1911)
- “Mahaia piparekin” (1912)
- “Biolina eta klarineta” (1913)
- “Kitarra eta botila” (1913)
- “Ron botila” (1914)

#### JUAN GRIS

- “Kitarra, edalontzia eta botila” (1914)

#### FERNAND LEGER

- “Biluziak oihanan” (1909-1910)
- “Emakume urdina” (1912)
- “Hiru emakume” (1921)

#### MARCEL DUCHAMP:

- “Emaztegai” (1912)

#### ROBERT DELAUNAY

- “Hiria, 2 zenbakia” (1910)

#### ALBERT GLEIZES

- “Paisaje” (1911)

#### JEAN METZINGER

- “Emakumeak puntua eginez“ (1919)

#### HENRY LAURENS (1885-1954)

- “Kitarra” (1915)
- “Botilla eta edalontzia” (1917)

#### OSSIP ZADKINE (1890-1967)

- “Emakume-formak” (1922)
- “Emakume” (1923)